

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1652

471/2017 EBAZPENA, martxoaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Nerea Gutiérrez Bartolomé andrea Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatu eta zerbitzu berezietan deklaratzeko.

Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusiak urtarrilaren 31ko 122/2017 Ebazpenaren bitartez egin zuen, eta 2017ko martxoaren 1eko EHAA n argitaratu (42. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiak aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Nerea Gutiérrez Bartolomé andrea deialdiko lanposturako ego-kia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Nerea Gutiérrez Bartolomé andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa, Araba Erakunde Sanitario Integratuko erizainaren lanpostu funtzionalaren 1015. ordena-zenbakiko plazaren titularra, Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatu da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusiak hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Nerea Gutiérrez Bartolomé andrea Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2017ko martxoaren 20tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Nerea Gutiérrez Bartolomé andrea zerbitzu berezietan deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 17a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.